

# PI RAMI DEA-3 azpiegiturak-3



Langile talde bat zarete. Egun osoan zehar euria egin du etengabe. Ibaiak gainezka datoz. Uholdeak izaten ari dira. Dei bat jaso duzue.

Zuen keinuak ikusita, ikaskideek istorio hau kontatu beharko dute urratsez urrats:

1. Zubia arriskuan dago. Ura gainetik pasatzen ari da eta apurtu daitekeela dirudi.

2. Gerritik ondo lotuta zubira zoazte. Ura gainetik pasatzen ari da, ia zuen belaunetaraino iristen da.

3. Zubibegiak erdi itxita daude. Zuhaitz adar asko pilatu da bertan. Zubia presarena egiten ari da ibaian.

4. Garabiarekin kentzen saiatzen zarete, baina oso gutxi kentzen dituzue. Adarrak handiegiak dira.

5. Bi urpekari arnesez ondo lotu eta zubitik behera jeisten zarete. Motozerraz adarrak mozten dituzue. Zubibegiak libratzen dituzue, ura handik doa.

saio berezia  
1.UD-ZAINKETA